

Lundi 25 novembre, à l'occasion de la journée internationale contre les violences faites aux femmes, nous manifesterons en solidarité avec et pour les femmes du monde entier, celles qui sont victimes des violences machistes, celles qui luttent, celles qui avec leurs enfants, sont les premières victimes des conflits armés, des famines, des gouvernements réactionnaires, avec toutes celles qui ne peuvent pas parler, celles qui subissent des violences sexuelles, des tortures et des mutilations.

La violence patriarcale s'exerce partout, à l'encontre des femmes, des enfants et des personnes LGBTQIA+. Elle s'exerce dans nos maisons, nos lieux de travail, nos lieux d'étude, dans la rue, dans les transports, dans les établissements de soins, les lieux de culture, de loisirs...

Les plus touchées par ces violences sexistes, dont les violences économiques, sont celles qui souffrent déjà de multiples oppressions : racisme, xénophobie, privation de papiers, exclusion sociale, grossophobie, validisme, LGBTQI+phobie, mépris de classe...

La progression de l'extrême droite en Europe est un grave danger pour les femmes. Partout où l'extrême droite et une partie de la droite poreuse à ses idées sont au pouvoir, elles sont les premières victimes de politiques réactionnaires.

Dans l'Etat français, malgré le sursaut populaire, le danger de l'accession de l'extrême droite au pouvoir n'est pas écarté. Et ce ne sont pas les gouvernements de Macron qui ont pris en compte nos revendications. La « grande cause du quinquennat » s'est soldée par l'éviction du juge Edouard Durand de la CIIVISE, le soutien à Depardieu, la baisse des budgets dédiés à l'égalité entre les femmes et les hommes, des menaces de couper les subventions d'associations féministes.

Les violences et l'impunité des agresseurs persistent 7 ans après l'élection d'Emmanuel Macron, en plein #MeToo. La plupart du temps, encore, les victimes ne sont pas crues, les plaintes classées sans suite. Les violences faites aux femmes, aux personnes LGBTQIA+ et aux enfants doivent être une priorité politique.

Le nombre de femmes et d'enfants victimes de violences intrafamiliales (213 000 par an) ne diminue pas, tout comme les viols ou tentatives (94 000 par an dont 8 000 au travail). Une femme en situation de handicap sur cinq a été victime de viol. 50% des lesbiennes et 75% des bisexuelles ont été confrontées à des violences dans l'espace public.

Les organisations féministes et syndicales ne cessent d'exiger une loi-cadre intégrale déclinant de nouveaux droits dans le monde du travail. Notamment la prise en compte d'urgence de la recommandation 206 de la convention 190 de l'Organisation Internationale du Travail qui prévoit entre autres un congé d'urgence en faveur des victimes de violences au sein du couple pour effectuer des démarches. La mobilité géographique des victimes doit aussi être facilitée. Les agresseurs sur les lieux de travail doivent être sanctionnés, immédiatement et sévèrement : ce n'est pas aux victimes de partir !

La loi-cadre intégrale devra s'emparer de tous les aspects de la lutte contre les violences faites aux femmes et dont la prévention, la sensibilisation de la population, l'accompagnement des victimes dans l'emploi, la santé, le parcours judiciaire, des sanctions et des suivis socio judiciaires des agresseurs avec des programmes spécifiques, des tribunaux dédiés aux violences sexistes et sexuelles composés de magistrat·es formé·es, ayant des compétences à la fois pénales et civiles.

**Des mesures intégrales pour faire face à toutes les formes de violences ! Les exigences indispensables des organisations syndicales féministes doivent impérativement être mises en place comme une Loi-Cadre intégrale ! La violence machiste n'est pas une fatalité !**

**POUR DES LIEUX DE TRAVAIL SANS VIOLENCE MACHISTE !**



**LUNDI 25 NOVEMBRE - 18H30  
PLACE DE LA LIBERTE - BAYONNE**

Azaroaren 25ean astelehenean, emazteen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna kari, mobilizatuko gara elkartasunez mundu osoko emazteekin eta emazteentzat, indarkeria matxistaren biktimak, borrokatzen direnak, beren seme-alabekin, gatazka armatuen, goseteen eta gobernu atzerakoien lehen jomugak, hitz egin ezin dutenak, indarkeria sexuala, torturak eta mutilazioak jasaten dituztenak.

Emazteen, haurren eta LGBTQIA+ pertsonen aurkako indarkeria patriarkala nonahi jardun da. Jardun da gure etxeetan, lantokietan, ikastetxeetan, karrikan, garraioetan, arta, kultur zein aisialdia guneeetan tokietan, aisialdi lekuetan...

Dagoeneko zapalkuntza anitz pairatzen dituztenak dira generoan oinarritutako indarkeria, horien artean bortizkeria ekonomikoa, gehien erasaten dutenak: arrazakeria, xenofobia, paperen kentzea, bazterketa soziala, lodifobia, balidismoa, LGBTQI+fobia, klase mespretxua...

Eskuin muturrak Europan egiten duen gorakada arrisku larria da emazteentzat. Eskuin muturra eta eskuin porotsuaren zati bat boterean diren toki orotan, politika atzerakoien lehen biktimak dira.

Frantses Estatuan, langile kontraofentsiba bat izan arren, eskuin muturra boterera iristearren arriskua ez da baztertzen.

Eta ez dira Macronen gobernuak gure aldarrikapenak kontuan hartu dituztenak. "Bosturtekoaren kausa nagusia" Edouard Durand epailea CIIVISEtik kargugabetzearekin, Depardieu-ri emandako babesarekin, emazteen eta gizonen arteko berdintasuna bideratzeko aurrekontuen murrizketarekin, elkarte feministen diru laguntzen mozteko mehatxuekin hetsi zen.

#MeToo bete-betean, Emmanuel Macron hautatu eta 7 urtera, erasotzaileen indarkeriak eta zigorgabetasunak bere horretan dirau. Kasu gehienetan, biktimak ez dira sinestiak, eta salaketeei ez da segidarik ematen.

Emazteen, LGBTQIA+ pertsonen eta haurren aurkako indarkeriak lehentasun politikoa izan behar dute.

Familia barneko indarkeriaren biktimak diren emazteen eta haurren kopuruak (urtean 213 000) ez dira apaltzen, bortxaketak edo saiakerak bezala (urtean 94 000, horietatik 8.000 lanean). Ahalmen urriko 5 emazteetatik bat bortxaketa baten biktima izan da. Lesbianen %50ek eta bisexualen %75ek indarkeria jasan dute espazio publikoan.

Erakunde feministek eta sindikalek lan munduan eskubide berriak jasoko dituen lege marko integral bat eskatzen segitzen dugu. Presazkotzat jotzen dugu bereziki Lanaren Nazioarteko Erakundearen 190 hitzarmenaren 206 gomendioa, besteak beste, bikotekidearengandik bortizkeria jasaten duten biktimen aldeko larrialdiko oporra aurreikusten duena, kudeaketa urraspideak egiteko. Biktimen mugikortasun geografikoa ere erraztu behar da. Lantokiko erasotzaileak berehala eta zorrozki zigortu behar dira: ez dute biktimek alde egin behar!

**Lege-marko integralak emazteen aurkako indarkeria borrokatzeko alde guziak aintzat hartu beharko ditu: prebentzioa, herritarren sentsibilizazioa, biktimak lan edo osasun kontuetan eta ibilbide judizialan laguntzea, erasotzaileen kontrako zigorrak eta hauen jarraipen soziojudizialak programa berezien baitan, indarkeria sexistari eta sexualari zuzendutako auzitegiak, eskumen penal zein zibilak dituzten epaile adituz osatuak.**

**Indarkeria mota guztiei aurre egiteko neurri integralak! Sindikatu feministen ezinbesteko eskakizunak ezinbesteko lege-marko integral batean indarrean ezarri behar dira!**

**INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO LANTOKIEN ALDE!**



**AZAROAK 25 - 18:30  
BAIONAKO HERRIKO ETXEAN**